

**UDALBATZAK 2010EKO URRIAREN 29AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI
DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko urriaren hogeita bederatziko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkatearen esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA (Gai Zerrendako 9. puntua eztabaidatzeko garaian bilkuratik irten da)
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

1. Udalbatzak 2010eko uztailaren 16an eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2010eko uztailaren 16an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri du.

Ondoren, Burgos jauna (Alkarbide) eta Duran jauna, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) bilkura horretara etorri ez zirelako, abstenitu dira, eta gainontzekoek alde bozka eman dute.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (1207 zk.tik 1347 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1398 zk.tik 1613 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Ebazpenen berri eman da: Alkatearenak (1207 zk.tik 1347 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1398 zk.tik 1613 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Sinatu den lankidetza hitzarmenaren berri ematea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza eratzeko.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza eratzeko lankidetza-hitzarmenaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. 07/02 EU: Alaberga Ibarbidea eremuko Plan Bereziaren 1. Aldaketa. Behin betiko onespren proposamena.

Aurrerakinak.

Hasiera batean aldaketako Plan Berezia jabetza bakarreko modalitatepeko unitatetzat hartuta burutzeko asmoa zegoen. Eta horretarako, BEL 1 eta BEL 2 lurzati eraikigarriak banaezinak zirela jotzen zen.

Alabaina, jabetza nola banatuta dagoen ikusita (bi jabe nagusi daude), eta kontuan izanik batek bakarrik (Vieres Aizcorreta, S.L., jabetzaren %52 duenak) bultzatu nahi duela leku horretan egin litekeena, aldaketarekin jabe bakoitzari, era autonomoan, dagokion aprobetxamendua exekutatzeko aukera eman nahi zaio. Era horretan, aldaketak BEL 2 (eraikuntza libreko bizilekua) lurzatia bi zatitan zatitzea planteatzen du.

Aldaketa aprobetxatuko da unitatearen mugak 2008ko irailaren 19an behin-betikotasunez onarturiko Hirigintza Jarduketako Programan jasotako terminoei egokitzeko. Horregatik zuzentzen dira Exekuzio-unitatearen azalerak eta BEL 1 eta BEL 2-ri dagozkien eraikin-partzelak.

Azkenik, aldaketa aprobetxatu da lurpeko solairuetara heltzeko arranpen diseinuan beste aldaketa bat egiteko, gisa horretan, lurzati pribatuaren mugetatik irten gabe, hobeto geratuko delako.

Administrazio-aurrerakinak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko uztailaren 16an eginiko bilkuran, hasierako onespena eman zion **07/02 EU: Alaberga Ibarbidea eremuko Plan Bereziaren 1. Aldaketari**, Aitor Mimendia Artuzamonoa arkitektoak 2010eko ekainean idatzitako dokumentuaren arabera (EHAEOK 2010-07-06an ikuskatua).

Akordio horri zegokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 2010eko uztailaren 26an, argitaratu zen. Era berean, akordio horren berri eman zitzairen planak hartutako eremuaren barruko jabeei eta Alabergako Auzo Elkarteari. Jendaurrean egondako garaian inork ez du alegaziorik egin Idazkari Nagusiak 2010eko irailaren 2an eginiko ziurtagirian adierazten duenaren arabera.

Era berean, hasierako izaeran onarturiko akordioa Uraren Euskal Agentziari (URA) bidali zitzaion eta Uraren Legeak ezartzen duen txostena egin zezaten eskatu. Hala ere, eskaera egin zenetik erantzunik jaso gabe 2 hile igaro direnez, tramitazioarekin aurrera jarraitzea erabaki zen.

2010eko urriaren 11n, udal arkitekto Ramon Ruiz Mendozak behin-betiko onespeneren aldeko txostena egin zuen.

Era berean, 2010eko urriaren 11n, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak behin-betiko onespeneren aldeko txostena egin zuen.

Proposamena.

Hirigintza batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP, Ezker Batua-Berdeak) eta 6 abstentzioz (Atxiki Gabeko Zinegotziak),

E R A B A K I D U

1. **Behin betiko onespena ematea 07/02 EU: Alaberga Ibarbidea eremuko Plan Bereziaren 1. Aldaketari,** Aitor Mimendia Artuzamona arkitektoak 2010eko ekainean idatzitako dokumentuaren arabera (EHAEOK 2010-07-06an ikuskatua).

2. Erabaki honen **berri ematea** planak hartutako eremuaren barruko jabeei eta Alabergako Auzo Elkarteari.

3. **Bidaltzea** –argitara eman baino lehen– plan berezi honen ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiari (euskarri magnetikoan eta ohikoan) Erregistroan jaso dezan.

4. **Argitaratzea** akordioa oso-osorik, planaren araudiarekin batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, probintzian gehien saltzen den egunkarian.

5. Hirigintzako Kontseilu Aholkulariaren udal erregelamendua.
Behin betiko onspen proposamena.

Aurrerakinak.

Udalbatzak, 2008ko uztailaren 26an eginiko osoko bilkuran, behin betiko onespena eman zion **Errenteriako Udaleko Hirigintza Planeamenduko Aholku Kontseiluaren Udal Araudiari**. Araudi hori argitara eman zen 2007ko abuztuaren 28ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean.

Geroago, 2008ko abenduaren 19an eginiko osoko bilkuran, Udalbatzak Errenteriako 2008-2010 Emakume eta Gizasemeen Berdintasun Plana onartu zuen. Orain, berriz, 2010eko Berdintasunerako Planaren Kudeaketa Plana lantzen ari gara.

Era berean, egin beharreko tramitazioa egin ostean, Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluaren Araudia onartu zen, 2010eko irailaren 20ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitara emana.

Plan horietan, 6.1.1. ekintzan, besteak beste, Hirigintza Parte-hartze Kontseiluan emakumeen presentzia eta genero-perspektiba berma dadin aurreikusten da.

Horregatik, kontu hori betetzeko xedez, *Planeamenduko Aholku Kontseilua arautuko duen Udal Araudian 1. aldaketa* egiteko zirriborro bat egin da. Hots, 2. artikulua hein batean aldatuko da partaide bat gehiago izango delako, eta azken bi xedapen.

2010eko urriaren 13an, Udaleko lege-aholkulari Vicente Castiellak, udal arkitekto Xabier Agirrek eta idazkari nagusi Francisco Javier Lesca Ezpeletak aldeko txostena egin dute.

Legeria.

Toki Araubide Oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1, 25.1 y 25.2.f, h, 47.2.f, 49, 70.2 1 eta 139tik 141era; Tokiko Araubide gaietan indarrean dauden Zehapenen Berreginiko Testuaren 55. artikulutik 59ra; AJAren 172. artikulua; 1958ko Prozedura Administratiboko Legearen 129. artikulua, 1992ko HAAJAK indarrrik gabe utzi ez zuen atala eta Udal Araudi Organikoaren 10.3 artikulua.

Proposamena.

Hirigintza Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du eurek beti argi utzi izan dutela ez dutela inolako arazorik Aholku Kontseilu honetan ordezkapena ahalik eta zabalena izateko, eta irizpen hori dute orain ere. Besterik da -dio- gai horrekin gertatu dena, eta horregatik, une honetan salatu egiten dute Hirigintzako lehendakariak gai honetan izandako jarrera. Ondoren, gazteleraz jarraitu du eta zera esan du: duela bi urte eta erdi Planeamenduko Aholku Kontseiluko partaideek eskaera egin zuten bilera bat egiteko. Bilera horretan indarrean dagoen araudia eztabaidatu nahi zen, eta Planeamenduko Aholku Kontseiluko presidenteak zein Hirigintza Batzordeko buruak ez zuten aintzat hartu eskaera hori denbora horretan guztian. Bestalde, duela hilabete bat edo, Hirigintza Batzordeko buruak araudi hori aldatzeko proposamena egin zuen, alabaina -eurek uste zutenaren aurka- bertan ez da planteatzen Aholku Kontseiluko partaideek eskatzen zuten aldaketa egitea, baizik eta, nolabait Udaleko Berdintasunerako Kontseiluak bultzaturiko aldaketa egitea. Bere aburuz, Hirigintzako buruaren jokabideak argi eta garbi uzten du Araudi hau era interesatu eta alderdikieriazko jokabidez baliatzen duela. Haren iritziz, pentsa liteke -batez ere, organo horretan izan litezkeen ordezkariak dagokionez- berari inolako arriskurik suposatuko ez dakiokeen aldaketak egin nahi dituela. Horregatik ozen salatu nahi dute batzordeburuak gai honekiko izan duen jarrera, izan ere, bi urte eta erdi pasa baitituzte Plangintzako Aholku Kontseilua elkartzeko eta araudi horren aldaketa eztabaidatzeko, eta denbora hori dena pasa ondoren deitu badute, Gobernu Taldearen interesengatik izan da, gaineratu du. Zentzu horretan, ez dute eztabaidatu duela bi urte eta erdi aurkezturiko proposamena, aitzitik, orain, presaka, Ordenantza aldatu nahi bada, Berdintasunerako Aholku

Kontseiluak bere planaren eta ordenantzaren barruan aitatzten duenagatik da, hau da, organismo horren barruan genero-iritzia kontuan behar delako. Eta, berriro dio, bat datozela irizpidearekin, besteak beste, oso ondo iruditzen zaielako organismo hauetan genero-iritzia presente egotea. Alabaina ez datoz bat proposamenarekin, hain zuzen Berdintasunerako Kontseiluaren Araudia nolakoa den ikusita, ez litezkeelako politikoak -kontseiluburua izan ezik- bertan egongo. Hots, Udalak Kontseilu horretan izango duen ordezkari bakarra, Berdintasunerako Kontseiluan esku hartzea utzi zaion politiko bakarra izango da hain zuzen ere. Hori horrela, eurek ikusten dute hainbat interes agertu direla gai hori jorratzeko garaian, eta, berriro dio, ondo iruditzen zaiola organismo horren barruan genero-iritzia kontuan hartzea, baina, euren taldea ez dator bat

Planeamenduko Aholku Kontseiluan Berdintasunerako Kontseiluak izango duen ordezkaria politikoa izatea, berak apolitikoa izan beharko zukeela suposatzen denean. Eta horregatik ez dute proposamen honen alde egingo.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, bere iritziz, gauza diferenteak nahasten ari direla. Izan ere, kontu bat baita Atxiki Gabeko Zinegotziek araudi hori aldatu edo berrikus dadin eskatzea, eta bestea, duela hainbat hile onartu zen Berdintasunerako Kontseiluaren Araudia. Araudi horretan -dio- proposatzen da Hirigintzako Aholku Kontseiluan ordezkari batek egon behar duela. Hori, lehen esan duen moduan, duela hainbat hile onartu zuten, eta orain, Udalbatza hartan onarturiko akordio burutu baino ez dute egingo. Aldiz, kontu hau oso diferentea da, aldaketa legitimo xume bat baino ez, Hirigintzako Aholku Kontseilu osoa berrikusi eta berregitea zilegi izango litzatekeen bezalaxe. Ondorioz, gauza bat da eskatzea, eta bestea, eskatzen dena ematea, gaineratu du. Edonola ere, deia egiten bada, alderdikeriengatik egiten dela esaten zaigu, eta ez bada egiten, gauza bera esaten da. Beraz, bada, horixe da

errealitatea, eta libre zarete nahi duzuenaz bozkatzeko, esan die.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du saiatuko dela kontua argitzen. Alkateak aitatu duen moduan, Berdintasunerako Plangintza 2009ko Udalbatza batean onartu zuten, eta bertan aurreikusten zen Berdintasunerako Kontseiluko ordezkaria Hirigintza Aholku Kontseiluan egongo zela. Hori berari ondo eta beharrezkoa iruditzen zaio, izan ere, aurreko legegintzaldian planteatu bazuten ere, zuzenean sartzeko aukerarik ez zuten izan. Hortaz, orain, Berdintasunerako Plangintzaren bidez, Udalbatza honek berretsita, hura betetzen dute. Bere aburuz, Hirigintza Aholku Kontseiluaren berezko funtzionamendua Udalbatza honetara ekarritako proposamenarekin nahasten ari dira. Bera ez zen izan akordio batzuk hartu ziren azkeneko Aholku Kontseiluaren bileran, zeinak ofizialki hartuak izan ez baziren ere, bai era ez ofizialean. Bera bat etor liteke Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotzia) atzerapenari buruz eginiko kritikarekin, baina Berdintasunerako Kontseiluaren bidez -horretarako sortutako organoa delako- emakumeek Hirigintzako Aholku Kontseiluan ordezkari izatea, erabilpen partziala, interesatua eta alderdikoa dela esatea, ba, bera ez dator, ezta inola ere, bat. Bere iritziz, Berdintasunerako Plangintza garatzeko hobe beharrez egin da eta Udalbatzak erabakitakoa betetzeko. Berak ez du oso ondo ulertzen zer esan nahi den indar-erlazioa

ukituta edo itxuraldatua suerta litekeela esaten denean, zeren eta Atxiki Gabeko Zinegotzien bozeramaileak baldin badaki zein den Hirigintza Aholku Kontseilura joango den Berdintasunerako Kontseiluko partaidea, berak baino gehiago daki, eta ondorioz, zaila egiten zaio zein den indar hori jakitea. Era berean, bere iritziz, gauzak nahasi egiten dira Berdintasunerako Kontseiluaren ordezkari politiko bakarra izango duen kontseilua dela esaten denean, izan ere, berak gai hori aboratu zuten osoko bilkuran esan zuena gogoratu besterik ez du egiten. Eta, jakina, berretsi egiten ditu

erabakia eta proposamena, hain zuzen –aitatu nahi du– jende anitzek parte hartzen duen Kontseilua delako, nahiz eta horrek norbait sumintzen duela iruditzen zaion. Bestalde, berak ondo baino hobeto ezagutzen du Murua jaunak aitatu duen Araudia, eta hori Kontseiluak eginiko lanari esker dela aitatzeko dio, hots, Udal honetako aholkularitza juridikoaren galbahea bakarrik pasatuta. Badirudi –dio– batzuetan herritarren parte hartzea exijituz dena eskas izaten dutela, eta, beharbada, Udal honetan, kasualitatez, parte-hartze hori ematen denean, zuek zalantzan ipintzen duzue, esan die. Horrez gain, esan nahi dio Kontseilu horretako burua bera bada, hala tokatu zaiolako dela, alegia, bera delako ordezkaria. Baina ez da kargu hori duen pertsona bakarra, zeren eta, Araudia irakurri badu, ikusiko du Kontseiluaren lehendakariorde kargua ere duela eta eginkizun

batzuk izendatuak dituela. Baina Berdintasunerako Kontseiluari buruz, eztabaidatzeko unea ez delako, jakinarazten dio hitz egiten ari dena Hirigintza Aholku Kontseilura Talde politikoa ordezkatzuz joaten dela, aldiz Berdintasunerako Kontseiluko ordezkaria emakume bat izango dela. Gainera, horretan ari badira ere, halaxe exijitzen delako, Hirigintza Kontseilura nor joango den eta nor izango den ordezkaria, oraindik izendatu gabe dagoelako, lanean ari direla. Bere aburuz urrats bat emanda aurrerantz, eta bera pozik dago, azkenean, genero-ikuspuntua Hirigintzako Aholku Kontseiluaren barruan egongo delako, eta hortaz, bere burua zoriondu baino ez du egiten.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du behinere ez duela ikusi EAJko bozeramaileak egin duen adinako manipulaziorik. Beretzat normala da –apolitikotzat jotzen den Kontseilu baten ordezkari politiko bakarra izango delako– proposamena berrestea. Haatik zuk esatea herritarren benetako parte-hartzeak sumintzen gaituela, ba, izugarria da. Berak ez du inoiz hori zalantzan ipini, are gehiago, zuk, intentzio osoz, Atxiki Gabeko Zinegotziek Berdintasunerako Kontseiluaren sortze-lan guztietan esku hartu dutela ez duzu aitatu ere egin, eta horrek ez du uste bere alde asko esaten duenik.

Eurek beti defendatu dute jendearen parte-hartzea erraztuko duten kontseiluak sortu behar direla. Are gehiago, gogorazten dio Ingurumeneko Aholku Kontseilua sortzeko zain daudela, Gobernu Taldea aurka dagoen bitartean. Eta Peña andrea aurka dago, Gobernu Taldeko partaidea izanik, ez zerbait egiten duelako, egiten ez duelako baizik, esan du. Haren ustez denek badakite nor sumintzen duen herritarren parte-hartzeak; hori demostratuta dagoela uste du, auzo elkarte guztiek eta giza-eragile guztiek ederki dakitelako. Atxiki Gabeko Zinegotziak ez daude Berdintasunerako Kontseilua izan dadinaren aurka, eta, berriro dio, berori garatzeko garaian kolaboratu zutela. Haatik, ez zaie inolaz ere bidezkoa iruditzen Berdintasunerako Kontseilu horretan, apolitikoa dela suposatzen denean, beraren buru politiko bat izatea. Eurentzat argi dago Kontseiluaren ordezkaria

presidentea izango dela, horrela esaten duelako, eta presidenteordea presidentearen ordezkaria izango da. Aldiz, Planeamentuko Aholku Kontseiluak ez du izaera apolitiko hori, izan ere, alderdi sozialistak lau ordezkari ditu, eta horrek erakusten du herritarren parte-hartzea norainokoa den. Alderdi sozialistak lau ordezkari ditu txostenak baino egiten ez dituen organo horretan, eta beraz, bere iritziz, politizatu baino politizatuago dago. Horrela, bere taldeak, une honetan, organismo horietan politikari ordezkari bakar bat ere egon ez dadin proposatzen du, hots, giza-eragileak izan daitezten kontseilu horien funtzionamendua, benetan, arautuko dutenak. Eta, berriro dio, oso garrantzitsua iruditzen zaiela herritarren parte-hartzea eta genero-ikuspuntua kontseilu mota hauetan guztietan egotea, hori eurentzat zerbait transbertsala delako. Alabaina gogoratzen dio Planeamentuko Aholku Kontseiluak, bere araudiari dagokionez, zuek ere onartu zenutenak, ezartzen duela haren eskumenak egitura-izaera duten dokumentuetara bakarrik mugatzen direla, hau da, Plan Orokorren dauden dokumentuetara. Eta horrek, bere aburuz, asko mugatzen du edozein giza-eragileren jarduketa, zeren eta horiek, logikoa den moduan, interes handia izaten dute hierarkikoki baxuagoak diren proiektuetan parte hartzeko,

hots, urbanizazio-proiektuetan, etab., eta hor genero-irizpideek balio dutela uste du. Izan ere, esango diote zein genero-irizpide ezarri nahi duten egiturei buruzko dokumentuetan, alegia, zenbat errepide, zenbat etxe, etab. ikusten direnetan, hor garbi dagoelako parte-hartzea ezer gutxira mugatzen dela. Bere aburuz, genero-ordezkarriak ezarri beharko du zein diren bere eginkizunak eta aldarrikapenak, alegia, organismo horretan ere hitz egin dadin herritarrengatik hurbilago dauden gauzez, eguneroko hirigintza-arazoez, hain zuzen haien ikuspuntua sartzeko. Bizkitartean, uste du, haren presentzia, bestearena bezalaxe, zaila bezain mugatuta egongo dela eguneroko beharrei erantzungo dieten kontuez hitz egiteko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Hirigintza Planeamentuko Aholku Kontseiluaz hitz egiten ari direla, eta horrek, argi eta garbi geratu behar duela.

* Peña andreak (EAJ/PNV) baietz esan du, baina hemen "tatxa" batzuek ateratzea utzi bada Berdintasunerako Kontseiluaren proposamenaren inguruan, uste du batzar horretan gauzak argitu behar dituela. Berak aitortzen dio Murua jaunari (Atxiki Gabeko Zinegotziak), beste talde batek egin duen moduan, bere taldeak esku hartu duela ahalik eta Berdintasunerako Kontseiluak politikoez ez zutela parte hartu behar erabaki zuen arte. Ez du berak erabaki, Atxiki Gabeko Zinegotziek ordezkaritza izan dute, eta hori ongi aski badakite, gaineratu du. Proposamen hau -dio- Berdintasunerako kontseilukideek egin dute, ez berak, nahiz eta berak naturaltasun osoz asumitzen duen. Gogoeta egin ostean, bidezkoa jo zen lehendakaritza Udalbatzaren partaide batek eramatea, horrela nahi zuten beraiek, hain zuzen informazioa eta gertutasun bat eman behar dela uste dutelako. Eta, berriro dio, Murua jaunaren Taldea bertan zegoela, teknikaria zegoen bezala. Horrez gain, esan nahi du politikoez ez daudela kontu

honetatik baztertuta, besteak beste, ez baita esan kontu hauek politika aldetik eztabaidatuko diren batzorde tekniko bat eta batzorde politiko edo foro bat badagoela. Horregatik, Kontseiluak planteatu zuen izendapen hauek bikoiztu egiten zirela, euren ekarpenak ez zuela batzordearen ihardespen bat izan behar esaten zuten bezala. Murua jaunak Hirigintza Aholku Kontseiluan emakumeek aporta dezakenaz hitz egiten duenean, berak uste du gainontzeko batzordekideek bezalaxe izango dela. Horrez gain, ez dagokio berari Hirigintzako Aholku Kontseilua defendatzea, baina bai gutxienez nabardura zenbait egin kritika horiei. Honen harira aitatu nahi dio lehendakariordearen eginkizunak, Kontseiluak hala erabakiz gero, lehendakariari lagundu edo ordezkatzeko-lanak egin beharko dituela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP, Ezker Batua-Berdeak) eta 6 abstentzioz (zinegotzi atxiki gabeak),

E R A B A K I D U

1. Hasierako onespena ematea *Planeamenduko Aholku Kontseilua arautuko duen Udal Araudian 1. aldaketari, espedienteari erantsi zaiona.*

2. Jendurrean jartzea 30 egunez –jendeak, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko–, horretarako iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, probintzian gehien saltzen den egunkari batean eta Udaleko iragarki-oholean argitara eman ondoren. Norbaitek egingo balu, Udalbatzak erabakiko lituzke, eta inork ez balu egingo, berriz, behin betikotasunez onartutzat joko litzateke.

6. Udalbatzak Alkatearen ebazpena berresteko proposamena. Bertan Udalak hitz ematen du Gecotor-Sabatenea eremuko lurrak

errekuperatzeagatik jasotako dirulaguntza itzultzeko, behin eta eremu horretatik gainbalioa sortzen bada.

Aurrerakinak.

2010eko irailaren 30ean Errenteriako Udalak diru-laguntza eskatu zuen *Gecotor-Sabatenea 12/03 E.U.an (J.M. Barandiaran parkea) Gecotor enpresa kokatuta dagoen lurzoru-kalitatearen azterlana* egiteko, aurrekontua 34.480,36 €-koa (BEZa barne) izanik.

Eskaera Ingurumen, Lurralde Antolakuntza, Nekazaritza eta Arrantzako Kontseilariaren 2010eko uztailaren 30eko aginduaren barruan sartzen da, hain zuzen Tokiko Udalbatzak, Makomunitate, Tokiko beste erakundeek, Tokiko organismo autonomoek eta Merkataritzeko sozietateek garapen iraunkorra sustatzen duten ekintzak burutu ditzatzen diru-laguntzak arautzeko.

Diru-laguntza horiek jaso ahal izateko Aginduan ezarritako baldintzen artean, besteak beste, zera azaltzen da: *Udalbatzaren akordioa edo baliokidea erantsi beharko da, eta bertan, konpromisoa hartuko da berrerabilitako kokalekuan gainbaliorik emango balitz, diru-laguntza itzultzeko, 1/2005 Legean, otsailaren 4koa, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoan xedatutakoari jarraiki.*

Bere garaian laguntza eskatzeko Udal honek Alkatetzak 2010eko irailaren 29an emaniko ebazpen bat bidali zuen, eta bertan, aurreko paragrafoan aitatzen den konpromisoa hartzen zela adierazi zen, eta Udalbatzarrak egingo zukeen lehenengo bilkuran berretsi behar zuela adierazi.

Hirigintzako batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. **Berrestea Alkatetzak 2010eko irailaren 29an emaniko ebazpena**, non konpromisoa hartzen baitzen **diru-alaguntza itzultzeko** baldin eta diru-laguntza eskaeran adierazitako kokalekua berrerabiltzekoan, alegia, *Gecotor-Sabatenea 12/03 E.U.an (J.M. Barandiaran parkea) Gecotor enpresa kokatuta dagoen lurzoru-kalitatearen azterlana* eginiko lekuan gainbalioa emango balitz eta kutsaturiko lurzoria berreskuratu Ingurumen, Lurralde

Antolakuntza, Nekazaritza eta Arrantzako Kontseilariaren 2010eko uztailaren 30eko aginduaren arabera, Tokiko Udaltzako, Mankomunitate, Tokiko beste erakundeek, Tokiko organismo autonomoek eta Merkataritzeko sozietateek garapen iraunkorra sustatzen duten ekintzak burutu ditzaten diru-laguntzak arautzen dituen.

7. Errenteriako Udaleko Osoko Bilkuraren akordio proposamena, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretutik eratorria, defizita murrizteko neurriak aplikatzeari buruzkoa.

Ondoren, mintzatu dira:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan duenez, denek badakite gai honen jatorria maiatzaren 20ko Errege Dekretu Legea, eta geroago, EUDELe hartutako erabakiak direla. Asmoa, I. kapituluaren barruan, soldata-masak suposatzen duen gastua murriztea da. Horretarako EUDELe jarraibide batzuek eman zituen, eta Errenteriako Udalak, Autonomia Erkidegoko gainontzeko udalek egin duten antzera, soldata-masa ehuneko bost murrizteko xedez, taula batzuek egin zituen. Taula horien arabera, alde batetik, langileek murrizketa bat jasango dute, eta bestetik, soldata-masa edo I. kapituluaren barruan beste aurrezpen batzuek egitea aurreikusten dira. Hori horrela, Giza Baliabide Saileko teknikariak txosten bat egin du, eta geroago, beste bat Udaltzako hartzaileak. Txosten horietako puntu zenbaitetan bat datozen, baina, era berean, bat ez datozen puntuak ere badaude. Izan ere, txosten batek, zazpigarren puntuan, esaten du "Alkateak ahalmena izango duela, akordio gauzatzearren, beharrezko neurriak hartzeko. Aldiz, Kontu-hartzaile jaunak esaten du ez dagoela behar bezala kuantifikatuta aurrezpen hori udal langileen soldatak egokituta egingo denik". Dibergentzia hori ematen delako edo, uste du txostenak bateratu beharke liratekeela, hau da, dibergentzi hori itxura batean bederen argitu. Eta itxuraz dio, hain zuzen bera ez dagoelako erabat komentzitia dibergentzi hori ematen denik. Bere iritziz, nabardura kontua da, edo txosten batek puntu zenbait gehiago hartu ditu kontuan, eta, beharbada, besteak

gutxiago. Hori guztiagatik, gaia mahai gainean uztea proposatzen du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Merino alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

Gaia mahai gainean uztea.

8. Osoko Bilkurari proposamena: Ezker Batua-Berdeak taldeak eta Zinegotzi atxiki gabeek aurkeztutako akordio proposamena, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren ondorioz lan eta gizarte eskubideetan aplikatu beharreko murrizketen ingurukoa.

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du:

"José Luis Rodríguez Zapaterok, Espainiako Gobernuko presidentea, politika norabide aldaketa gauzatuz, maiatzaren 20ko 6/2010 Errege Lege Dekretuaren bidez lan eta eskubide sozialak murriztea onartu zuen. Murrizketa horiek zuzenduta daude egoera ahulenean dauden sektoreek, langile eta pentsionistek hain zuzen ere, krisi ekonomikoaren ondorioak ordain ditzaten. Horri erantzuten diote aipatutako Errege Lege Dekretuan hautatutako neurriek, eta helburu nagusienetako bat da urteko soldatan soldata-masa ehuneko bost murriztea.

Nahiz eta Parlamentuan hainbat talde politikok murrizketa horien kontrako botoa eman, errealitatean hori aplikatzea errazten ari dira. Horrela, Eudeleko Exekuzio Batzordeak ez zuen zalantzarik izan (2010eko maiatzaren 27an) gomendio erdua adosteko, hain zuzen ere enplegatu publikoen soldaten

murrizketa aplikatzeko. Akordio horrek dakar Euskadiko Toki Erakundeetako Langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena, UDALITZ 2008-2010, partzialki etetea. Nabarmendu behar da, gizarte-eskubideei dagokienez, hori oso gertaera larria dela. Sektore publikoan negoziazio kolektiboa deuseztatu egin da, eta alde bat besteari bere baldintzak inposatzera pasatu da.

Gastu publikoaren edozein murrizketa eskaera sustatzeko helburuekin kontrajarria da, izan ere, helburu horiek ezinbestekoak dira gaur egungo bezalako egoera ekonomiko batean. Egoera honetan gastua murriztuz ez dago defizita mugatzea lortzerik, diru-sarrerak igotzeko mekanismoaren bidez egin behar delako.

Enplegatu publikoen soldatak murriztearen eta izoztearen kontra gaude erabat, baita departamentuak murriztu eta enpresa-sektore publikoa gutxitzearen kontra ere. Kasu honetan, murrizketek bakarrik balio dute jarduera horiek sektore pribatuak burutu ditzan, kostu gehiagorekin eta inolako kontrolik gabe.

Hau guztia kontuan hartuta, honakoa proposatzen da:

AKORDIOA

LEHENA.- Errenteriako Udalbatzak Diputatuen Kongresuari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die 8/2010 Errege Dekretuan jasotako neurriak indargabetzeko.

BIGARRENA.- Tokiko Udalbatza sistema publikoan pentsioak izozteko edozein neurriren kontra dago eta bereziki eskatzen dio Gobernu zentralari egokitzeko neurriak erretiratzeko, hain zuzen ere 2011ko pentsioak izoztu eta erretiro partzialaren baldintzak aldatzen dituztenak.

HIRUGARRENA.- Tokiko Udalbatzak Gobernu zentralari, hiru foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die Ondarearen gaineko Zerga berehala berreskuratzeko. Horrek aukera emango luke 2.200 milioi euroko igoera izatea zerga-bilketan, betiere indarrean egon zen azken ekitaldian (2007) aurreikusitako zerga-bilketaren arabera, era horretan alferrikakoa izango bailitzateke pentsioen edozein murrizketa edo haiek gozatzeko baldintzak gogortzea.

LAUGARRENA.- Tokiko Udalbatzak Gobernu zentralari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die indar politikoetako ordezkariari urteaz deitzeko erreforma-fiskal progresiboko neurri sorta bat adosteko, era horretan gehiago izan edo irabazten dutenek gehiago ordain dezaten, eta erakunde finantzarioetan eta espekulazio operazioetan zerga-bilketa handitzeko neurriak jar daitezzen. Neurri horiek ezkutuko ekonomiaren eta iruzur fiskalaren aurkako Plan zorrotz bat ezarri beharko dute. Gainera, administrazio publikoek neurri eraginkorrak hartuko dituzte gastua arrazionalizatzeko, kalitate eta eraginkortasun hobereana bilatuz".

Ondoren, mintzatu dira:

* Peralta andreak (PP) esan du mozioaren puntu zenbaitekin ados egongo lirakekeela, eta ondorioz, puntuz puntu bozkatzeko proposatu du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) galdetu du ea horrek azalpen-zatia onartzen dutela esan nahi duen.

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du mozioa irakurtzeko orduan zalantza zenbait sortzen zaizkiola, ez hainbeste azalpen-zatian, akordioko puntuetan baizik, izan ere, Gobernu zentralari, Eusko Jaurlaritzari, Aldundiei, eta, gutxiago bada ere, Tokiko udalbatzen erantzukizunei dagozkien kontzeptu zenbait nahasten direla iruditzen zaio. Era berean, nahasi

egiten da, esaterako, lehenago hitz egin zezaketen dekretua, dekretuak ukitzen dituen pentsioak, eta, halaber, hitz egin du Estatutu fiskalitatez eta Gobernuaren fiskalitatez, denek badakitelarik, Estatutua eta geroztikako akordioak direla medio, fiskalitatea Aldundietatik askozaz zuzenago eramaten dela. Edonola ere, uste du planteamenduak bultzatzeko modukoak direla, batez ere, pentsioen puntu nagusiaz hitz egiten denean. Beretzat sorpresa da PP-k puntuz puntu bozkatzeko proposamena egitea, halere, berak ez luke osotasunean edo puntuz puntu bozkatzeko arazorik izango. Alabaina, puntuz puntu bozkatzeko bada, pentsioen aferan erabat ados egongo litzateke. Berak ez du uste pentsioak murriztea kudeaketa txarraren eraginez sortutako defizita murrizteko erabili behar denik. Aitzitik, fiskalitatearen aferak pittin bat ukitzen du, hots, akordio-proposameneko puntuak irakurrita ematen du ez dela ezer egiten gai honen inguruan, aldiz, berak egiten dela pentsatzen du. Hala eta guztiz ere, aldeko bozka emango du, zerga

iruzurraren aurka borrokatu behar dela uste dutelako; ados daude gehiago dutenek are gehiago ordaindu behar dutela, eta ados daude ondarearen gaineko zergari izena aldatu dakiokela, eta milioi bat eurotik gorakoei, fortuna handiko zerga deitzearen aldekoak izango lirateke. Bere iritziz, aurrerantzean neurri zenbait aplikatu beharko lirateke, eta mozioko puntuak egokiak iruditzen zaizkionez, ba, aldeko bozka emango du.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du ezer baino lehen lehenengo kontua ongi kokatu behar dela. Eta hori egin behar da, komunikabide zenbaitek, nahita, nonbait horrek hornitzen duelako populismorik merkeena, Dekretuaren zati batzuek bakarrik nabarmentzen dituelako. Kontuak horrela, lagun batek zera esaten zion: antzinako Erroman ogia falta zenean, zirkua egin eta lehoietara botatzen zituzten kristauak gehitzen ziren. Aitzitik, hemen lehoietara inor ez dugunez botako, eta beste neurri ekonomiko batzuek hartzeko kuraiarik ez dugunez, ba, funtzionarioen soldata jaisten dugu, gisa

horretan egungo egoera ekonomikoaren "errudun"tzat joz. Zertaz hitz egiten dugu 8/2010 Dekretu-legez hitz egiten dugunean, galdetu du. Administrazioarentzat lana egiten duten pertsonen soldatari eragingo dien gastu-murrizketaz eta gastu sozialaren kapitulu zenbaiten (pentsio, menpekotasun-prestazioaz eta jaiotzekoaz) gutxitzeaz hain zuzen ere, gaineratu du. Hau da, PSOEk proposatzen diguna euroa defendatzeko, defizit publikoa zuzentzeko eta zorretik eratorritako gastuei aurre egitearren kaudimena izan dezan, funtzionarioak, pentsionistak eta menpekotasun legeaz baliatzen direnen aurka jotzea. Horregatik, hasiera batean finantza-krisia gisa hasi zena, krisi soziala izaten amaituko du. Hortaz, dauden lekuan egonda, uste du komeni dela ezkututzen ari ote diren gauza zenbait gogora ekartzea. Alegia, zergatik igo zen defizit publikoa? Ba, kontrol publiko guztietatik at dagoen banku-sistemari laguntzeko hain zuzen ere, esan du. Horiek, esaldi zaharrak dioen moduan, "zekenkeriaz zakua hautsi zuten" ber-berak direlarik. Zergatik sortu den zorraren krisia? Ba, lehen lagundu zitzaaien berek orain presionatzen dietelako lehen inolako baldintzarik gabe (gutxienez ezagunak) lagundu zitetenei. Egoera honetan nor da erruduna eta nor biktima? Ba, uste du mozioa aurkeztu duten Atxiki Gabeko eta Ezker Batua-Berdeak-eko zinegotziek bidea erakusten dutela, PSOEk ibili nahi ez duena, hain justu. Bestalde, UGTk, ziur aski Udal honetako zinegotzi bat baino gehiago afiliatuta egongo da, mozioa aurkeztu dutenen oso antzeko ikuspuntua du, aste horretan bertan CCOOrekin batera aurkeztu duen dokumentuan ikus litekeen moduan. Berak ez daki asko eskatzea izango ote litzatekeen, baina nahiagoko zukeen sindikatuaren indarrak militantzia politikoak baino handiagoa izango balu. Bere iritziz, eurek zentzu dezenteko gauzak esaten dituzte. Adibidez: 1. Errege lege-dekretua ez dela ez bidea ezta irtenbidea ere. Arazo handiagoko iturburua da, lege aldetik ere zalantzazkoa dena, eta hortaz, gaur komunikabideek dioten bezala, Konstituzio Epaitegiak ebatziko du auzia. Hori horrela, norbaitek galdetu al du dekretu-legea inkonstituzionala aterako balitz, zenbat kostako litzatekeen.

2. Krisi finantziero baten ondorioak ez ditzakete jaso okerren dauden giza-sektoreek –funtzionario gehin-gehienak–, horiek ez baitira pribilegiatu batzuek, zeren eta, bai baitaude funtzionarioak eta funtzionarioak, pentsiodunak edo menpekotasun egoeran dauden pertsonak. 3. Bere aburuz, diru-sarrerak gehitzeko modua miatu beharko litzateke. Zerga-bilketa Europako bataz bestekoarekin parekatuko balute, EAEan bakarrik 4.000 milioi gehiago jasoko lituzkete. 4. Erreforma fiskala egiten hasi behar dute berehala. "Zuek badakizue –dio–, baina gaizki ulerturiko elektoralismoak eztabaida hau udal hauteskundeak pasa arte atzeratzera eraman dizue, esan die. Bere aburuz, krisiak oraindik ondo jo ez duenean beste moduko politika egin liteke, haren ondorioak are okerragoak izan ez daitezzen. Eurei eztabaida hori garrantzitsua izango dela iruditzen zaie, eta horregatik aurkeztu dute mozio hau. Bere iritziz, badaude etsia hartu edo "merkatuen logika" –jakingo duzue zer den hori– onartzea beste biderik ikusten ez dutenak, zenbaitek euren politika ekonomikoak aplikatzeko fede berriaren dogma bihurtu dutena. Amaitzeko, esan nahi du bere Taldeak ez duela eragozpenik mozioa puntuz puntu bozkatzeko.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du, berak ere, mozioan bi gai gurutzatuta daudela uste duela, eta bestalde, azalpen-zatia dago. Egia esateko –dio– Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) egoera konplikatu samarrean jarri die mozioan esaten denarekin, hein batean, bera ere bat datorrelako. Aitzitik, beste zatiarekin erabat desados dago, hots, azalpen-zatiko oinarri zenbat ezin ditu bere egin. Ongi geratzeko jarrera harrezakeen eta itxurakeriak egiten aritu, baina arduraz eta koherentziaz jokatzeko asmoa du bere alderdiak markaturiko bideari jarraiki, eta, berak ez duelako diferente bozkatzeko asmorik, ez du inolako eragozpenik puntuz puntu bozkatzeko. Eta, berriro dio, kontu zenbait bere egin zitzakeela, baina jakinarazten du ez duela puntu bakar baten aldeko bozkarik emango, hain zuzen azalpen zatiarekin ez datorrelako bat, eta bateren batean absteniko delako. Jakina, berak uste du denak

etor zitezkeela pentsio, soldata eta prestazio-kontuak beste modu batera izan zitezkeela, baina denek, jakin badakite ere, kontu hau kudeatzea zaila dela. Izan ere, ez baitie soldata eta pentsioei bakarrik eragiten, bere iritziz, beste gauza askori baizik, eta zentzu horretan publikoki gogorazten du bere Alderdiak, erakunde guztietan aurrekontuak izan daitezen, beste bi alderdirekin, ekonomia aldetik egonkortasun egon zedin, hitzarmen bat sinatu zuela. Hau kritikatu izan daiteke, baina soldata eta pentsio-sistemak iraun dezan, berak ere, ulertzen du aurrekontuak egon behar dutela, bestela hondamendia

izango litzakeelako, aurrekontua edozein eratakoa izanda ere, esan du. Ondorioz, puntu horiekiko berak lotura du bere Alderdiarekin, honek egonkortasun-hitzarmena sinatu duelako. Bestalde, erabat desados dago zerga-politikaren inguruan adierazten denarekin. Izan ere, Ondareari buruzko zergaz hitz egiten denean, gogorazi behar da zerga honek errenta altuenak grabatzen dituela, eta hori Araban, Bizkaian eta Estatu espainolean kendua dutela, eta ez litzaioke gaizki irudiko Gipuzkoan ere desagertuko balitz. Ez balitz horrela egingo, kapitalek ihes egingo lukete, baita biztanleek ere, hain zuzen errentarik handiak dituztenak errazago dutelako bizilekuz aldatzea. Horrezaz gain, ondareari buruzko zergak lotura zuzena du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin, eta ondorioz, ondare-zergarekin biltzekoa den asmoa, lehen aitatu duen ihesa emango litzateke, eta orduan, PFEZrekin baino dezente gutxiago bilduko litzateke. Hori aztertuta dago, eta horrela da nahitaez, gaineratu du. Besterik da -dio- denak ados egotea gehiago duenak gehiago ordaindu behar duela esaten denean, baina praktikan zerga hori berriro ipiniko balitz, esandako emaitzak emango lituzke, eta beraz, bera ez dago horrekin ados. Aldiz, gastua arrazionalizatzeko neurriak hartu behar direla eta, bera ados egongo litzateke, baita iruzurraren aurka jarduteko ere, jakina, esan du. Baina, lehen aitatu den puntuan ematen du ez dela ezer egiten ari, eta hori ez da egia, gaineratu du. Haren iritziz horretan ari dira, eta noski,

gauza guztiak bezala, hobetu liteke, baina lanean ari dira. Eta puntu horren alde aterako balira, inplizituki, ez direla ezer egiten ari aitortzea izango litzateke. Eta laugarren puntuaren lehenengo atalari dagokionez, hots, alderdi politikoetako ordezkariak deia egitea, hauek zergaren afera jorra dezaten, berak uste du zergak koordinatzen dituen organoa horretan ari dela.

* Angulo jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du, bere iritziz, Ezker Batua-Berdeak-eko ordezkariak ia dena esan du. Hortaz, berak labur jardungo du. Argi dago -dio- egoera ekonomikoa larria dela, bai Euskal Herrian bai mundu osoan, eta hori zuzentzeko ahalik eta azkarren hartu behar dira neurriak. Arazoa, ordea, neurri horiek nola hartu behar diren da. Eurek argi ikusten dute egoera ekonomiko larria bada, ezin dela dekretu bidez konpondu eta adostasun zabalago bat bilatu behar dela gizarteko sektore guztiekin. Hartutako erabakiaren aurkako mugimendu politiko eta sozial zabala dago eta eurek garbi ikusten dute ezin dela krisia langileen bizkar utziz konpondu. Horrela, beste batzuei erraztasunak ematen zaizkien bitartean, langile-sektoreak gero eta estuago hartzen dira, izan ere, Gobernuak errazena egin baitu: behekoei kendu, alegia. Bitxia da, halaber, zer nolako neurriak hartzen diren, aurreko urtean bankari -ez itotzearren- dirutza handia eman zitzaiolako. Horrez gain, beste gastu batzuk ere aita ditzakete, esaterako, Afganistango gerra, etab. Beraz, uste dute krisia sektore guztiekin hitz eginez konpondu behar dela, eta ez aurreko urtean baino diru gehiago irabazten ari diren bankuei dirua emanaz. Iruzur fiskalari dagokionez, berriz, urtero-urtero ELA sindikatuak eta beste batzuk esaten dute hemen, Gipuzkoan, enpresarien iruzur fiskala izugarria dela. Hortaz, uste du EAJko ordezkariak esan duena, hots, "errenta altua dutenei zergak igotzen badizkie alde egingo dutela" ez dela egia. Berak, ostera, pentsatzen du jende horrek diru gehiena Suitzan ondo gordeta edo Alacanten etxebizitzak egiten edukiko duela. Eta bitxia da, era berean, esatea aberatsei nola ordainaraziko diegu, euren diruarekin alde egingo dute

eta. Horren ondorioa erraza da: langileak kale gorrian geratzen direnean, gizarajo horiek kanpora joatea ezinezkoa dutenez, ba hemen geratuko dira. Hori bai, zergak, tasak eta denak horiei igoko dizkiegu. Aldiz, aberatsei ez, badaezpada ere, kobratuz gero, joan egingo dira eta. Horregatik, eurek mozioaren alde daude, baita puntuz puntu bozkatzeko bada ere.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du krisia mundu guztira dagoela hedatua, eta egiatan, berak mozio honetatik ateratzen duen ondorioa, zera da: hemen izan ezik -bekaturik egin ez duen errugabetasun gotorleku txiki bat delakoan-, denak direla errudun. Izan ere, ez ezazue ahaztu mundu guztian ekonomisten azterlanak, Nobel saridunenak eta beste sektoretakoak ere daudela, baina badirudi hemen guk ez beste guztiek dutela errua. Honek, gutxienez, Asterixen lurraldea ematen du: Estatua kritikatzeko da, baita Eusko Jaurlaritza eta Aldundia ere. Neurriak hartzeko eskatzen zaie, baina guk ez. Ba, "nonbait besteen bolborarekin tiro egitea oso erraza denez, etor bitez salbak", esan du. Lehen PPko eledunari erantzuten zioenean, zentzu horretan egiten zion, izan ere, mozioak duen sarrerarekin eta dario zaion populismoarekin azter zezakeen, baina luzeegia da eta Udalbatza hau ez da horretarako. Eta, berriro dio, duen filosofiagatik ezin dute alde bozkatu, ezta puntuz puntu ere, zeren eta, sarrera, berriro errepikatzen du -mina eman dezaketen kalifikazioak erabiltzen dituela inor esan ez diezaion-, gutxienez ehuneko ehunean populista da. Guk ez beste, denek gaizki egiten dutela dirudi. Langileriak -bera ere den bezala- eskubide asko dituela uste du eta asko exijitu behar duela, baina, bere iritziz, soldata-igoera handiak eman dira; miseriazko pentsioak zuzendu eta hobetu beharreko dauden bezala, asko baloraturiko pentsioak ere daude. Horregatik, uste du idatzi horretan gauzak asko sinplifikatzeko direla, eta mozioa errealitatetik urrun dagoela. Mizioa puntuz puntu bozkatzeko jarriko du, baina, berriro dio, esandako

guztiagatik bere Taldea berorren aurka azalduko dela, nahiz eta badagoen bat etor litekeen punturen bat.

* Peralta andreak (PP) esan du konbentziturik dagoela hein batean mozio hau ona dela. Izan ere, Gobernuak ohartarazten zuten Espainian krisi handia zegoela, baina hori Gobernuak behin eta berriz ukatzen zuen, eta uste du enplegu-politikak egin beharrean, soldatak murriztu dituela. Hori, jakina, egin dezakeen haien gain, hots, funtzionario eta pentsiodunen kontura. Berak ez du uste pentsiodunek ordaindu behar dutenik, urte gehiegi lan egin dutela pentsatzen duelako, orain, euren azken urteetan, euren soldatak, babes-neurriak, ongizatea, etab. murriztuta ikusteko. Horrez aparte, erretiroei dagokienez, horiek ez dira Estatutu aurrekontuetan sartzen, Toledoko hitzarmenean baizik, esan du. Haatik, ez daki hitzarmen hori orain badagoen, gauzak dauden bezala egonda, horiek ez direlako garbi esaten, berak ez dakielako dirurik badagoen. EAJ-PNVz esan behar du Espainiako Gobernuak –gero hainbeste kritikatzeko badu ere– “zupatz” bizi dela. Ez dakite ziur zer hitzartu duten, baina beldur da aurrekontuez gain eta Euskal Erkidegora ekar dezaketenez aparte, esan ez duten zerbait ote den, eta hortaz, zain daude. Mozioaren bigarren puntuan erretiratuen pentsioez esaten denarekin erabat ados dago. Bestea –dio–, Auzitegi Konstituzionalean dagoenez, hark zer esaten duen itxaron beharko dute, baina uste du prest egon beharko luketela, atzeragineko ondorioekin bada ere. Orduan, nork ordainduko du: denek?, Gobernuak?, Gobernu zerekin bizi da?. Bere iritziz, hor nahaste-borraste handi samarra dago, eta horregatik, lehenengo, hirugarren eta laugarren puntuetan abstenituko dira, eta bigarrenean, alde bozkatuko dute. Pentsiodunek ez dute zertan ordaindu Gobernu espainolaren akatsak, gaineratu du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), berriro dio, hor esaten diren gauza zenbaitekin bat datorrela, baina hau ez da Gorte Nagusiak, Errenteriako udala baizik, eta beraz, nahikoa dute Errenteriarri eragiten

dioten kontuekin, horiek direlako Udalbatza honi eragin edo Udalbatzaren eskumenak. Hortaz, ez du uste auzoko ateak ixtera joan behar dutenik.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) erantzun du, Alkatea mintzeko asmorik gabe, esan behar dio txipiroi baten antzera jokatzeko duela. Alegia, alde aurretik tinta bota kontua ez eztabaidatzeko, edo are okerrago, Lege-dekretuan proposatzen diren neurrien -bat bestearen atzetik- alde dagoela esateko. Horrela, bera harrituta dago hor esaten denak Errenteriarri edo Udal honi ez diola ezer eragiten esaten delako, garbi ikus litekeen moduan, eragiten diolako eta horren aurrean kokatzea Udalaren eskumena delako. Gertakarien aurreko jarreraz hitz egiten ari dira, eta Lege-dekretuari buruz hitz egiten dutenean, Alkatearen jarrera aurrera eramatekoa da; eta egiten ez badu -dio-, nahikoa indar ez duelako da. Hori horrela, zenbaitek ustezko indarrarekin euren ahultasuna ezkutatu baino ez dute egiten, baina dagoena dago, gaineratu du. Hortaz, espero du atxiki gabeko zinegotziei eta bere taldeari errekonozitzea lehenengo aldiz politikaz ari direla, eta mozioan adierazten dutenarekin beste bide bat egin litekeela erakusten dute. Zeren eta, zuek, Alderdi Sozialistak, Gobernuak eta zuen inguruko komunikabideek, behin eta berriro, beste biderik ez dagoela diozue. Eurek, aldiz, badagoela beste biderik diote, are gehiago, udal hauteskundeetan, zuek bide hori, edo gehiena bederen, egingo duzue, gaineratu du. Amaitzeko, esan nahi du harrituta dagoela EAJk publikoki errekonozitu duelako ez dagoela ados gehien duenak gehiago ordaindu behar duela dioen printzipioarekin. Berak uste du hori dela EAJk, ahal duen lekuan, aplikatzen duen politika, baina publikoki hain argi esateak, ba, harritu du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, parodia bat dirudielako, berak kontuak hainbeste sinplifikatzeari arazo bat ikusten diola. Bere aburuz, kontuak, zoritxarrez, konplexuak dira eta bi ildotan sinplifikatzeak egoera arraroetara eta faltsuetara eramaten

ditu. Alabaina, bakoitzak nahi duena pentsatu eta nahi duena proposatzeko libre dago, gaineratu du.

Horiek amaitutakoan.

Peralta andreak (PP) eskatuta, mozioa puntuz puntu bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 9 botorekin (Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, Atxiki Gabeko Zinegotziak), aurkako 8 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eta 4 abstentzios (PP, EAJ/PNV),

ERABAKI DU

Onartzea mozioaren lehenengo puntua, akordio honen azalpen-zatian jasoa.

Jarraian,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, PP, Atxiki Gabeko Zinegotziak), aurkako 8 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eta 2 abstentzios (EAJ/PNV),

ERABAKI DU

Onartzea mozioaren bigarren puntua, akordio honen azalpen-zatian jasoa.

Jarraian,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 10 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV) aurkako 8 botorekin (Ezker Batua-Berdeak, PP, Atxiki Gabeko Zinegotziak), (eta 3 abstentzios (Alkarbide, PP),

ERABAKI DU

Atzera botatzea mozioaren hirugarren puntua, akordio honen azalpen-zatian jasoa.

Jarraian,

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 9 botorekin (Alkarbide, Ezker Batua-Berdeak, Atxiki Gabeko Zinegotziak), aurkako 8 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eta 4 abstentzios (PP, EAJ/PNV),

ERABAKI DU

Onartzea mozioaren laugarren puntua, akordio honen azalpen-zatian jasoa.

Hortaz, bada, ondoko akordioa hartu dute:

"José Luis Rodríguez Zapaterok, Espainiako Gobernuko presidentek, politika norabide aldaketa gauzatu, maiatzaren 20ko 6/2010 Errege Lege Dekretuaren bidez lan eta eskubide sozialak murriztea onartu zuen. Murrizketa horiek zuzenduta daude egoera ahulenean dauden sektoreek, langile eta pentsionistek hain zuzen ere, krisi ekonomikoaren ondorioak ordain ditzaten. Horri erantzuten diote aipatutako Errege Lege Dekretuan hautatutako neurriek, eta helburu nagusienetako bat da urteko soldatan soldata-masa ehuneko bost murriztea.

Nahiz eta Parlamentuan hainbat talde politikok murrizketa horien kontrako botoa eman, errealitatean hori aplikatzea errazten ari dira. Horrela, Eudeleko Exekuzio Batzordeak ez zuen zalantzarik izan (2010eko maiatzaren 27an) gomendio eredua adosteko, hain zuzen ere enplegatu publikoen soldaten murrizketa aplikatzeko. Akordio horrek dakar Euskadiko Toki Erakundeetako Langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena, UDALITZ 2008-2010, partzialki etetea. Nabarmendu

behar da, gizarte-eskubideei dagokienez, hori oso gertaera larria dela. Sektore publikoan negoziazio kolektiboa deuseztatu egin da, eta alde bat besteari bere baldintzak inposatzera pasatu da.

Gastu publikoaren edozein murrizketa eskaera sustatzeko helburuekin kontrajarria da, izan ere, helburu horiek ezinbestekoak dira gaur egungo bezalako egoera ekonomiko batean. Egoera honetan gastua murriztuz ez dago defizita mugatzea lortzerik, baizik eta diru-sarrerak igotzeko mekanismoaren bidez.

Enplegatu publikoen soldatak murriztearen eta izoztearen kontra gaude erabat, baita departamentuak murriztu eta enpresa-sektore publikoa gutxitzearen kontra ere. Kasu honetan, murrizketek bakarrik balio dute jarduera horiek sektore pribatuak burutu ditzan, kostu gehiagorekin eta inolako kontrolik gabe.

Hau guztia kontuan hartuta, honakoa proposatzen da:

AKORDIOA

1.- Errenteriako Udalbatzak Diputatuen Kongresuari eta Estatuko Gobernuari eskatzen die 8/2010 Errege Dekretuan jasotako neurriak indargabetzeko.

2.- Tokiko Udalbatza sistema publikoan pentsioak izozteko edozein neurriren kontra dago eta bereziki eskatzen dio Gobernu zentralari egokitzeko neurriak erretiratzeko, hain zuzen ere 2011ko pentsioak izoztu eta erretiro partzialaren baldintzak aldatzen dituztenak.

3.- Tokiko Udalbatzak Gobernu zentralari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die indar politikoetako ordezkariak urdazkiaz deitzeko erreforma-fiskal progresiboko neurri sorta bat adosteko, era horretan gehiago izan edo irabazten dutenek

gehiago ordain dezaten, eta erakunde finantzarioetan eta espekulazio operazioetan zerga-bilketa handitzeko neurriak jar daitezten. Neurri horiek ezkutuko ekonomiaren eta iruzur fiskalaren aurkako Plan zorrotz bat ezarri beharko dute. Gainera, administrazio publikoek neurri eraginkorrak hartuko dituzte gastua arrazionalizatzeko, kalitate eta eraginkortasun hobereana bilatuz”.

9. Osoko Bilkurari proposamena: Zinegotzi atxiki gabeek, eta Ezker Batua-Berdeak, EAJ/PNV eta Hamaika-1 taldeek Ikerketa Batzordea sortzearen inguruan egindakoa.

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du:

“Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera (LANE), mundu mahaian 2,3 milioi langile hiltzen dira laneko gaixotasunek eta istripuek eraginda. Prebentzio arauak bete ez izatea egoera honen erantzulea dela dio aipatutako erakundeak.

Prebentzio Arauak betetzearekin Erakunde Publikoen konpromiso irmoa ez da inoiz zalantzan jarri behar eta betetze horren aldeko apustua bere eguneroko jarduerarekin argi erakutsi behar dute.

Esandako konpromiso eta apustua betez, urte hauetan arazo honi lotuta izandako gertaera batzuk argitzea ezinezkoa da. Izan ere, oso denbora laburrean lau langilek izan duten lan istripua argitzeko behar diren neurriak hartzeko garaia iritsi da. Aipatu berri dugun asmo horrekin eta gure konpromiso argiaren erakusle, udalbatzaren osoko bilkurari honako erabakia har dezan proposatzen diogu:

ERABAKIA

1. Epaiak laneko istripuak izan direla aitortutako kasuen jarraipena egiteko Ikerketa-batzordea eratzea, eta honako langile hauen kasuak aztertzea:

- Udaltzaingoko emakume bat.
- Hirigintza saileko teknikari bat.
- Babes zibileko arduraduna.

- Hiri mantenimenduko arduraduna.

2. Ikerketa Batzordearen izaera eta helburuak atxikitua dagoen orrian zehazten dira". (Horri hori espedientean eranskin gisa jasota dago).

Idazkariak 2010eko irailaren 22an eginiko txostena ikusi dute.

Ondoren, mintzatu dira:

* Burgos jaunak (Alkarbide) adierazi du, Gai Zerrendan azaltzen den eran, bere Taldea, bere garaian, Ikerketa Batzorde hau sortzearen alde azaldu zela. Era berean, orduan mahai gainean gera zedin eskatu bazuten, ez zen izan soilik edukiz osatzeko, nola arautu zitekeen eta nola eman ziezaioketen zentzua eta izaera pixka bat, lan-plangintza bat barne dela, ikusteko baizik. Orain orduan eskatu zuten guztia dute. Eta hortaz, orduan alde egingo zutela zioten bezala, orain ildo berean daude, eta beraz, Ikerketa Batzordea sortzearen aldeko bozka emango dute.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du bere Taldeak hasieratik azaldu dela Ikerketa Batzorde hau sortzearen alde. Oinarri-oinarrian ez dute errudunak bilatzeko asmoarekin egiten, beti badiren edo ez diren beste lekuetan erabaki beharko litzatekelarik; eurek ez daude, halaber, inor plazara -iseka herrikoia egin diezaioten- eramatearen alde. Egiten badute, Udal honek lan-baldintzen inguruan ez duelako errezeloren izpirik behar da. Eurentzat, Udal honek zerbait behar badu, atea irekita edukitzeaz gain, kristalezko paretak behar ditu. Horregatik, Ezker Batua edozein Ikerketa Batzordearen alde egongo da, beti ere eratzeko pisu handiko arrazoiak baldin badaude. Horregatik, aldeko bozka emango dute, eta gainontzeko taldeek ere halaxe egin dezaten eskatzera ausartzen dira.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du gai hau lehenengo aldiz Udalbatzara etorri zenean, bere taldea Ikerketa Batzordearen alde azaldu zela, nahiz eta, planteatu zen bezala planteatuta, salbuespen batzuek ipintzen zituen. Gai honen inguruan akordio bat lortzeko konpromisoa erakutsi zuten, eta gaur ikus dezaketen bezala, proposamena sinatu zuten. Beraz, ez zen osoko bilkura hartan aurrera ateratzeko kontu bat, esan du. Ikerketa Batzordea sortzearen aldekoak dira eta halaxe eskatzen dute. Alabaina, irrikitan daude, neurri zenbait ezarri eta Udalaren inguruan holako egoerarik gehiago sor ez dadin, Batzorde horretatik zer nolako aholkuak aterako diren ikusteko. Hortaz, bada, mozioa zein batzordea etor bitez nahi dutenez, aldeko bozka emango dute.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) uste du areto horretan hartuko duten erabakia garrantzitsua izango dela. Bere iritziz frogatu daiteke oso zabaldua dela, erakunde guztiek konpromisoa hartzen dutela, egoera mota horiek eman ez daitezten. Bere aburuz, Ikerketa Batzordea zerbait normala izateak egoera horiek eta ondorioak ekiditeko benetako konpromisoa dagoela esan nahi du. Zentzu horretan, uste du afera hori aurrera eramateko gauza direlako denak zorientzeko moduan daudela. Edozein arazo formal edo juridiko saihestearren, eta kontuan izanik Idazkaritzak egin duen txostena, proposamenaren bigarren puntuan aldaketa bat egitea planteatuko zuketuen. Horrek bi atal edukiko lituzke: bat, puntu horren idazketa txosten juridikoak Batzordearen eraketari buruz dioenari egokitzea. Hau da, proposamenean Talde bakoitzeko partaide bat, gehi Alkate jauna jartzen bazuen, badirudi Idazkariaren txosten teknikoak ohartarazten diela batzordeetako ordezkariak Udalbatzaren ordezkariak proportzionala izan behar duela. Horregatik, idazketa berri bat planteatuko lukete, hots, txosten horretan adierazitakoari jarraiki. Gutxienez bere Taldearentzat Ikerketa Batzordea sortzea gauza berria da, eta jakina den moduan, arauketaren aldetik hutsune zenbait dituzte. Bigarren puntuan proposatzen

duten beste aldaketa zera da: ikus-idatzizko prentsatik jasotzen ari diren informazioari dagokio soilik. Batzordeko presidentea oposizioko zinegotzi bat izan dadin proposatzen dute, eta hori ez dute hala gustatzen zaielako egiten, osatzen ari diren batzordeek hala egiten duela frogatuko dutelako baizik. Euren Taldeak ordezkatuta ez dagoen erakundeek hala egiten edute, esaterako, atzo Euskal Lege Biltzarrean Ikerketa Batzorde bat eratu zen, eta horren presidente oposizioko partaide bat izango da. Horrez gain, duela gutxi Donostiako udalean Ikerketa Batzorde bat eratu da, eta berorren presidentea oposizioko taldeko batekoa da. Eta, gai honi buruz izan daitekeen arauak ez dituztela ezagutzen errepikatuta, eskaera hori egiten dute prentsan azaltzen diren datuei jarraiki. Horrezaz gain, Lasarten eman den kasu bat aitatu nahi du, hor ere, Ikerketa Batzordeko presidentea oposizioko talde batekoa delako. Horixe da proposamena aldatzeko duten arrazoi bakarra, alegia, batzordeburua oposizioko talde batekoa izan behar duela. Euren ustez aldaketa horiek sartzeko bozkatu beharko lukete, proposamena ez delako txosten juridikoaren araberkoa, eta etorkizunean kontu honekin arazoak saihestu nahiko lituzkete. Beraz, bidezkoa joko balitz, bere Taldeari gustatuko litzaioke lehenengo aldaketa horiek bozkatzea eta gero dokumentu osoa bozkatzea.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du eurek ez direla Batzorde hori eratzearen aurka azalduko. Bere iritziz, denek badakite zertaz ari diren, eta, jakin badakite, zer duten esku artean. Are gehiago, bere iritziz, epaitegiek hitz egin dutenaren arabera, zuhurragoa izango litzateke gauzak dauden bezala uztea. Eta lehen norbaitek Erromaz hitz egin duenez, uste du, "*Roma locuta, causa finita*" utzi beharko luketela. Eta, berriro dio, epaitegiek hitz egin dutela; euren ikerketak egin dituzte, baina bere Taldeak, ez duelako ezer ezkutatzeko, ez da Ikerketa Batzorde horren aurka azalduko. Bere aburuz, bigarren puntua ez dute han konpondu beharrik, han Batzordea sortu, eta zuzenketa hori gero etorriko litzatekeela uste du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, Acosta jaunak adierazitakoaren arabera, bere iritziz, ekarri dena Ikerketa Batzordea sortu edo ez da. Zein erregelamendurekin funtzionatuko duen, etab., uste du, eginkizun hori Batzordeak egingo duen lehenengo bileran egin beharrekoa izango dela. Hortaz, bada, egun onartuko dena, botoek hala erabakitzen badute, Batzordea sortzea izango da. Gero, Udalbatzatik at, deialdia egingo da; Batzordea sortuko da, eta hor eztabaidatuko da "araudiaren zirriborroa", eta ez gaur egin diren aportazioak bakarrik kontuan hartu, baizik eta Idazkari jaunak, araudiaren inguruan eginiko txostenean markatzen duen ildoari jarraiki jardungo da. Horrez gain, berak ere, ez du susmorik Udal honetan zerbait gorde izan denik. Uste du nahiko baliabide daudela gaiak ezagutzeko eta eztabaidatzeko. Kereila eta salaketaren bat egin denean epaitegiek esku hartu dute, egin behar duten bezala. Hala ere, jarduketa honek zer izan den laguntzen badu, hortxe daude aktak, espedienteak, txostenak, eta, lege aldetik, jakina, egin beharreko guztia egingo da, esan du.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du ziur aski Alkate jaunak ez duela ulertu berak eginiko proposamena. Mozioan bi puntu proposatzen dira: bat, Batzordea sortzea kasuak aztertzeko, eta bigarrena, Ikerketa Batzorde horren karakterizazioa onartzea. Logikoki -dio-, bigarren puntu horrek zentzua du, zeren eta, Alkarbideko ordezkariak gogoratu duen moduan, gai hau atzeratu bazen, eskatzen zen gauza bakarra Batzordea sortzea zelako zen. Orduan erregelamendu bat, funtzionamendu-arau bat, edo, nahi den bezala deitu, sortzea proposatzen zen. Gero, pasa den denbora pasa da, eta egun eskaera hari erantzuteko, mozioa dator bi punturekin: Batzordea sortzea eta erregelamendua edo funtzionamendu araua egitea. Berak, bere aldetik, bi puntuak bozkatu behar direla pentsatzen du, bestela hainbat hile bidean galduko lituzketelako. Besterik da -dio- bigarren puntu horren aldaketa, etab. azter zitezkeela; ez daki hori egin litekeen,

baina mozioa bere osotasunean bozkatu beharko litzakeela uste du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan duen zerbait dagoela, eta, halaber, Idazkariak ere txostena egin duela. Honek historia egiten du eta aurrekari argirik ez dagoela aitatzten du. Horrekin guztiarekin, Atxiki Gabeko Zinegotzien bozeramaileak bere planteamendua egin du, eta berak hasierakoa berresten du. Hau da, bozka dezagun Batzordearen onespena, eta funtzionamenduarauaren onespena utz dezagun lehenengo bilerarako.

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du horraraino iristeko gauza izan badira ia-ia %99,9ko kontsentsuarekin, eta ia-ia dio —ez soilik Batzordea sortzeari dagokionez, baizik eta araudian edo karakterizazioa eta Batzordeak eman beharreko urratsetan—, orain uste du akordio hori Idazkari jaunaren txostenari egokitu behar zaiola Batzordearen osaketari dagokionean bakar-bakarrik. Bere iritziz, era berean, denak bat datoz batzordeak Udalean talde politiko bakoitzak duen ordezkartzaren arabera izan beharko duela. Berak ez du uste mozioa datorren bezala bozkatu gabe utzi beharko zuketarik, are gutxiago kontsentsura iristeko galdu duten —batzuei besteei baino gehiago— denbora galdu eta gero. Berak ikusten duen tatxa bakarria Batzordeko presidentea nor izan litekeen da, izan ere, bere aburuz, hor egongo da eztabaida bigarren puntua dagoen bezala egonda, eta Atxiki Gabeko Zinegotziek eginiko proposamena kontuan hartuta. Berak gai hori mahai gainean utziko luke eta aurrera egingo luke gainontzeko guztiarekin. Hau da, osaketa eta mozioaren esanahi guztiarekin, zeren eta, lehen zioen bezala, denbora pasa dute gainontzeko guztiarekin ados jartzen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), zalantzarik balego edo, berriro dio, bera ez dela ezer atzeratzen ari, ezta ezer atzeratu dadin

proposatzen. Bera lehenengo bileran, lehenengo puntua Batzordearen araudia onartzea izan dadila, eta gero tokatzen dena, esaten ari da. Berak ez du hor atzerapenik ikusten.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du legegintzaldi honetan lehenengo aldia dela mota honetako kontu bat abordatzen dutela. Bere iritziz, lehen begiratu batean, araudia ez litzateke asko aldatuko han proposatzen denetik. Edonola ere, bera prest egongo litzateke Batzordearen edozein bileratan ezein aldaketa egiteko. Jakina -dio- lehenengo bileran planteatu behar da kontu horrekin norbaitek diferentziaren bat baldin badu. Mintzaldiak interpretatu ostean, uste du diferentzia Batzordeko lehendakaritzaren aferan eman litekeela. Hori horrela, berak lehendakaritzaren afera lehenengo bileran planteatzea nahiko luke, baina gaur mozioa bi puntuekin bozkatzea. Hala ere, irekiak egongo lirateke Alderdi sozialistak edo Udaleko beste edozein taldek Batzordearen funtzionamendua edo karakterizazioa hobetzeko proposamena ikusteko. Bere aburuz, ez dago ezer itxita, irekia baizik, nahiz eta orain ez den gauza proposatzen den baino oso diferenteago beste bat nolakoa izango litzatekeen ikusteko, zeren eta, proposamen hau, berak dakien heinean, beste lekuetan izandako esperientzietatik jasota dago.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du dena irekita dagoela, eta orain edo Batzordearen lehenengo egin ez dela ezer aldatzen esaten da. Horixe da berak planteatzen duena, orain ez egiteko, Batzordearen lehenengo bileran baizik. Gainera -dio- ez dago ezeren beldurrik, han boto-proporzio bera izango delako. Berak, une oroz, batzordearen eraketaz hitz egiten zuenean, uste zuen gaur Batzordea eratu eta lehenengo bileran, lehenengo puntuan, berori jarduteko araudia onartuko zuketela.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du mozioak bi puntu dituela, eta bigarrenak, hitzez hitz, honelaxe dio: "Ikerketa Batzordearen osaketa eta helburuak erantsitako orrian jasotzen

dira". Eta erantsitako orriaz ari da Idazkaria osaketa zinegotzi-kopuruaren arabera -boto-proporzioagatik- izan beharko zukeela aitatzten duenean. Ez da ari batzordean bozeramaile bakoitzaren atzean zenbat boto dituen, baizik eta, Idazkariak kontu honetan pertsona batek boto bat duela dio. Hau -dio- Bozeramaileen azkeneko Batzarrean ikusi zen, eta han akordio bat erdietsi zuten, non, nahiz eta lan gehiago emango zukeen, batzordearen osaketa egungo batzordeetakoari egokituko zatekeen. Hori da -dio- planteatzen den aldaketa bat eta, bere aburuz, Alderdi sozialistak mozioari oniritzia ematen badio, Bozeramaileen Batzarrean egin zuen ildo berean, orain ez dira aurka azalduko. Bere aburuz, osaketa hori pleno-akordio honetan jasota geratu beharko luke. Haatik, Batzorde berri horretako presidente Alkateak izan beharko zukeen edo ez, ez zen

Bozeramaileen Batzar horretan abordatu, Udalbatza honetan eginda proposamena zuzen-zuzenean, gaineratu du. Bere aburuz, gai horrek garrantzi dezentea dauka, itxura guztien arabera, aho batez onartuko dena. Horregatik, ondoko proposamena egiten du: "batzordea osatuko duten pertsona-kopurua Udaleko idazkariak dionaren arabera egokituta", zeren eta, PPK esaten duenaren baitan, denak bat datozelako. Eta atera ezazue proposamenetik -dio-, hori delako desadostasuna sortzen duen puntu bakarra, hurrengo bileran eztabaidatuko delako Batzordeko lehendakariaren afera. Gainontzeko guztian, aho batez, ados jarri badaitezke, ez zaio iruditzen saihesteko kontua denik.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, mintzaldi gehiagorik ez badago, bere aburuz Peña andreak (EAJ/PNV) eginiko proposamena zera izango litzateke: Ikerketa Batzordearen karakterizazioan Udalbatzan duten proportzionalitate bera izango duela sartuko litzateke, presidentearen izendapena lehenengo bileran egiteko geratuko litzatekeelarik.

* Idazkariak esan du 9 edo 10 partaidez osaturik egongo litzatekeen definitzeke geratuko litzakeela.

* Queralt jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du hori orain definitu beharko litzakeela lehenengo bilerara nork joango litzatekeen jakiteko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Udal honetako batzorde zenbaitek 9 edo 10 partaide dituztela. Denek jakin badakite ordezkariak hari baten baitan dagoela. Hortaz, soka hainbeste ez tiratzeko eskatu du, Idazkariarekin egon eta 9 edo 10 izan behar duten proportzioak ikusi ondoren, kontua argitzeko tarte bat uzteko. Bozera maileekin hitz egingo du, eta talde bakoitzak jakingo du zanbati egingo zaion deia. Gehiegi eskatzea izango litzateke orain iritzia ematea, ez gogo bizirik duelako, Udalaren eratu zen une beretik zalantzazko kontua delako baizik. Hausnarketarako denbora eskatu du, eta berak ez du itxita uzten.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du proposatzen zuten aldaketan, prozedura dela-eta, esateko Idazkaritzan talde bakoitzaren ordezkarien izenak.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du hori akordioari ezer eragiten ez dion mekanika-kontu bat baino ez dela. Besterik gabe, egun batzuk hartu, hitz egin eta jardungo dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eztabaidatzeko orduan **eginiko aldaketak sartu dituzte**, alegia, dokumentuaren bigarren puntua: "*Ikerketa batzordearen karakterizazioa*", espedientean, eranskin gisa, ondorengo eran jasota dagoena:

- **Eraketari dagokionez,** Idazkariak txostenean adierazitako irizpideari jarraiki, **Batzordeak Udalbatzaren proportzionalitate bera izango du, hau da, berori osatzen duten hainbat udal taldeekiko dagokionez.**

- **Definitzeke geratzen da batzordeak 9 edo 10 partaide izango dituen.**

- **Lehendakaria hautatzeke geratzen da,** zeina Batzordeak egingo duen lehenengo bilera egingo baita.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

Onartzea akordio honen azalpen-zatian jasotako mozioa, bigarren puntuari eragiten dioten **aldaketak** barne.

10. Galderak eta eskariak.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du, denek dakiten moduan, pasa den asteartean emakume bat bere bikotekideak erasotu zuela Iztieta auzoan. Eta deitoratzen du eurek, udal gisa, bere taldea barne dela, nahiko erreflexu ez izana ekintza hori salatu eta errefuxatzeko. Bere aburuz ez dezakete Berdintasunerako Kontseiluaren esku utzi kasu hauetan adierazpena egin dezan. Argi dago ondo dagoela egitea, baina uste du Udal gisa zerbait esan beharko zuketela. Dena dela, bere Taldeak eskatzen du erasotzailearen inguruan zerbait egiteko aukera Udalak azter dezan. Bestalde, erabat arlo diferentean, jakin nahiko lukete Errenteriako Udalak iragan irailean Donostiako autobusek dituzten pantailetan publizitate kanpainaren bat egin ote zuen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), lehenengo gaiari dagokionez, esan du albistearen

berri izan bezain agudo, bere lehenengo reakzioa salaketa-ohar bat idaztea izan zela. Galdetu zuen eta esan zioten emakume-taldeek edo antzekoren batek nahigo zuela gaia eztabaidatu eta adierazpen ofizialik ez zedin izan. Bera horretan geratu zen eta ez zen ekitaldirik egin. Geroago ikusi du bezpera arratsalderako deialdi bat egin zela, zenbat jendek parte hartu zuen, etab., baina, berriro dio, hobe zela Udal gisa adierazpenik ez egitea esan ziotela, eta berak aholku horri jarraitu zion. Bigarren gaiari dagokionez, berriz, berak dakien heinean, ez da inolako kanpainarik egin.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du, lehenengo gaiari dagokionez, gauza bat dela Udalak, udal modura, ekitaldi jakin baterako deia egitea -hori eztabaidatu zezaketen-, eta bestea adierazpen publikorik ez egitea. Bere aburuz, Udalak gisa horretako egoerak ematen direnean ez luke ixilik geratu beharko. Berak onartzen du gai horren inguruan ez zuela ezer planteatu, baina ez dator bat Udalak iritzia ez duela eman behar esaten dutenekin.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), berriro dio, hasiera batean saiatu zela, baina harrera ona ez zuela izan ikusi zuenean, atzera egin zuen.

Jarraian.

* Cano andreak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du duela gutxi Fanderian obra batzuk egin direla, eta jakin nahiko lukete bertan lanean aritu diren langileek zein bizi-baldintzetan aritu diren. Izan ere, eurei ez direla oso egokiak izan esan diete.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du obra hori kirol zerbitzuaren ustiapena eskuratzeko baldintza-agirietan jasotzen zena zela.

Berak dakien heinean, proiektu bat egin zen, gero Hirigintzara eramanez, eta han onartu zen. Horraino berak ez du ezer askorik esateko. Horrez gain, enpresa-esleipendunak, hasierako eskaintzan, baldintza horietan sartuko zela adierazten zuen, eta hobekuntza gisa, kafetegia aldatu, txikitu, aparatuen aretoa handitu, etab. egingo zuela eskaini zuen. Gero, egin beharreko tramiteak egin zituen, eta Udalak ez du beste ezertan eskurik hartu, esan du.

* Cano andreak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du, eurei esan dietenaren arabera, langileak barrakoi batzuetan lo egin dute; kaleko iturrietan garbitzen aritu dira, etab. Horregatik galdetzen zuten zer nolako bizi-baldintzetan aritu diren.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du ahal duen guztia egingo duela jakiteko, eta nabarmendu du Udalaz kanpoko kontu bat dela. Berari kezka hori normala iruditzen zaio, eta bere esku baldin badago, jakingo du zer gertatu den.

Jarraian.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du osoko bilkura horretan egoera ekonomikoaz hitz egin dutela, eta eurek kezkatuta daude, bere garaian Saneamendu-plana egin behar zela onartu zelako. Alabaina, iada azaroan egonik, ez dakite gauza handiegirik -txosten baten bidez zerbaiten berri baldin badute ere-, eta hortaz, jakin nahi dute ea zertan dagoen plan ospetsu hori.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du eman zitzaketen urrats guztiak eman dituztela zein departamentutan egin zezaketen murrizketa informazioa jasotzearen. Horrela, Kontu-hartzailatzarekin hitz egin dute diru-sarrerak eta gastuak nola murriztu

ikusteko; gainera, bilerak egiten eta eztabaidan jarraitzen dute. Arazoa da, ordea, bakarka jardunez lan handia dela eta gutxi aurreratzen dela. Hala ere, berak ez dio ukorik egiten saneamendu-plana egiteari, baina ez diezake besterik esan, nahas-mahasa argitzen saiatzen ari direla izan ezik, beti ere jakinik ohiko gastuetan dezente aurreztu behar dutela.

Ondoren.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du aurrekontuak egiteko modua arautua dagoela, eta horretarako epe batzuk ipintzen direla. Gainera, denek badakite epea gainditua dagoela, orduan jakin nahi dute hurrengo urteko aurrekontua zein egoeratan dagoen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, aurreko puntuan esan dion antzera. Lanean ari dira. Izan ere, jarrerak ez badira hurbildu nahi, asko kostatzen da. Beraz, sentitzen du, ez du axolakabe modura erantzun nahi, alderantziz baizik. Arazoa da ezin dituztela, inola ere, gauzak zehaztu, eta bizkitartean, ahaleginak eta bi egiten ari dira.

Mintzaldiak amaitu direnez.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 10:40 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.